

XIV. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

XIV FERIA DE ARTESANIA DEL PAIS VASCO

XIV FOIRE D'ARTISANAT DU PAYS BASQUE

ERRENTERIA

1992 MAIATZAK 1-2-3



LAGUNTZAILEAK



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

ERRENTERIAKO UDALA



GIPUZKOA
DONOSTIA KUTXA



ANTOLATZAILEA
EREINTZA ELKARTEA



XIV. EUSKAL HERRIKO
ESKULANGINTZA AZOKA

XIV. FERIA DE ARTESANIA
DEL PAIS VASCO

EREINTZA ELKARTEA-ERRENTERIA

KATALOGOA

CATALOGO

AÑO 1992 URTEA

**PARTE HARTURIKO
ARTISAUAK****ARTESANOS
PARTICIPANTES****ZURA - MADERA****ARGIZAIOLAK, KUTXAK,
HALTZARIAK...****(Talla tradicional y mueblería)**

- Carmelo Boneta (Lizarra)
- Antton Mendizabal (Oiartzun)
- Fermín Anda (Bakaikoa)
- Jesús Ruiz de Infante (Otxandio)

EZPEL ZALIGINTZA**(Cucharería de boj)**

- Marcos Saragüeta (Mezkiritz)

KAIKUAK, OPORRAK...**(Útiles tradicionales de madera)**

- Santiago Oteiza (Errazu)

MAKILAK (Bastones)

- * Aitor Amor (Soraluze)
- * Luis Madariaga (Arantza)

UPELGINTZA (Tonelería)

- José Fernández Coll (San Adrián)

OTARGINTZA - CESTERIA**GAZTAIN ZUMITZEZKO
OTARGINTZA****(Cestería de fleje de castaño)**

- Juan Unzueta (Durango)
- * Iñaki Agirrezabala (Beasain)

ZUME OTARGINTZA**(Cestería de mimbre y caña)**

- * Lourdes Aranaga (Erandoio)

FRONTOI SASKIGINTZA**(Cestería de frontón)**

- Miguel Angel Arriaga (Berriz) *AB*

**BURNI ETA METALKIAK
HIERRO Y METALES****HAIZKORAK (Hachas)**

- * Fermín Erviti (Leitza)

**KUPREZKO TRESNAK
(Cacharos de cobre)**

- Faustino Puente (Balmaseda)

**BURDINLANTZA
ARTISTIKOA****(Forja artística)**

- Francisco Martín (Elgorriaga)

GRABAKETA**(Grabado a buril)**

- * Vicente Alberdi (Eibar)

DAMASKINTZA**(Damasquinado)**

- * M.^a Jesús Berasaluze (Ermua)

EHIZA ESKOPETAK**(Escopetas de caza)**

- * Juan Ramón Zubillaga (Eibar)

**BUZTINA,
HARRIA ETA BEIRA
BARRO,
PIEDRA Y VIDRIO****BUZTINGINTZA (Alfarería)**

- Antonio Naharro (Navarrete)
- Blanca Gómez de Segura (Gasteiz)
- Gregorio Aramendi (Zegama)

KERAMIKA (Cerámica)

- * Joseba Lorza (Pasai Antxo)

BEIRA TAILAKETA**(Cristal tallado)**

- * Gabriel Alvarez (Irún)

BEIRA PUZTUA**(Vidrio soplado)**

- Soplados Arias (Bilbo)

BEIRATEAK (Vidrieras)

- Serge Taillant (Bardoze-Lapurdi)

PORTZELANAK HOTZIK**(Porcelanas en frío)**

- Purificación Noguera (Billaba)

HARGINTZA (Cantería)

- * Pablo Arrastia (Arellano)
— Cesáreo Soule (Arizkun)

OHIALKIAK - TEXTILES

EHUNGINTZA (Tejido)

- Taller Lauaxeta (Mungia)

EUSKAL PANPINAK**(Muñecos Vascos)**

- * M^a Teresa Arenas (Bilbo)

BOLILLOAK**(Encaje de bolillos)**

- Quiteria Millán eta Asunción
Arévalo (Errenteria)

TAPIZAK (Tapices y alfombras)

- * Estibalitz Berrio (Bilbo)

LARRUA - CUERO

GUARNIZIOGINTZA**(Guarnicionería)**

- Melchor Vicente Labat
(Lizarra)

OINETAKOAK (Calzado)

- Pedro Redín (Iruñea)

ZAHATOGINTZA (Botería)

- Juan José Etxarri (Iruñea)

LARRUZKO PILOTAK**(Pelotas de cuero)**

- Prudencio Jauregi (Lazkao)

POLTSOAK, GERRIKOAK**ZORROAK...****(Artículos diversos en cuero)**

- * Gorka Oruetxabarria (Bilbo)

ERREBOTEKO GOANTEAK**(Guantes de rebote)**

- Florentino Ibarra (Labaien)

SOINU TRESNAK**INSTRUMENTOS****MUSICALES**

SOKA TRESNAK**(Instrumentos de cuerda)**

- * Luteria Tailerra (Bilbo) 40

DULTZINAK, ATABALAK**(Dulzainas y Atabales)**

- * Lizarrako Gaiteroak (Lizarra)

TXISTUAK, XIRULAK,**ALBOKAK****(Txistus, Xirulas y Albokas)**

- Joseba Gastiain (Antzuola)

HAINBAT**ESKULANGINTZAK****ARTESANIAS VARIAS**

ADARLANGINTZA**(Artesanía en asta)**

- * Manuel Morcillo (Gasteiz)

ITSASUNTZIEN**MODELUGINTZA****(Modelismo naval)**

- Juan Palmer, Joaquín
Fernández eta Manuel Beltrán
(Pasai San Pedro)

- * Carlos Ortega (Billaba)

ENKUADERNAKETA**(Encuadernación y papel
marmolado)**

- * Paperontzia (Santurtzi)
— Elena J. Aberasturi (Donostia)

ERRETXINEZKO PANPINAK**(Muñecos en resina)**

- * Karalis Tailerra (Lasarte-Oria)

ELIKADURA**ALIMENTACION**

ARGIZAIGINTZA (Cerería)

- Fermín Azkarate (Tolosa)

ERLAZAINNTZA (Apicultura)

- * Fernando Lizarralde (Oñati)

TALOAK (Talos)

- Loiarte Sendia (Zubieta-
Nafarroa)

KONFITERIGINTZA**(Confitería)**

ARTISAU ETA LANGINTZEN
BERRI-LABURRAK

RESEÑAS DE ARTESANOS
Y ESPECIALIDADES



*OHARRA: *Ikurra ez daramaten artisauen
berri-laburrak ez dira Katalogo honetan agertzen;
izan ere aurreko Azoken Katalogoetan
sarturik bait daude.*

*Nota: Los artesanos que no llevan asterisco
no aparecen reseñados en el presente Catálogo,
al estar incluidos ya en
los Catálogos de Ferias anteriores.*

Artisaua / Artesano:
AITOR AMOR BERRAONDO

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1948, Azaroak 25 - Soraluze

Helbidea / Domicilio:
Kalebarren, 22 - 3º
SORALUZE (Gipuzkoa)

Telf.: 75.23.89



Aurkezpen gisa:

Eskopeta fabrika batetan egiten duen egokitzaile-montatzaile lanak eta mendirako zaletasunak interes bizia sortarazi diote eskulangintzari buruz. Horrela, ebaketa baten ondoriozko sendaldian, autodidakta moduan, zura lantzen eta bastoiak egiten hasi zen, gero lagunei oparitzeko.

Iñaki Alberdi artisauak egindako euskal makila tradizional bat ikusteak makilak egiten hasteko irrika bizian jarri zuen. Orduan hasitako lanari jarraituz, gaur egun artisautza lan honetan berrikuntzak sartzeko ahaleginetan dabil (ohiturazko makilen estetika eta estiloa mantenduz), bi makila moeta egiten dituelarik: bata agintariena eta bestea ohorezkoa. Batera daramatza mekaniko lana eta makilgintzarena, ekoizpenak enkar-guz edo azoketan saltzen dituelarik.

Otros datos:

Su trabajo como ajustador-montador en una fábrica de escopetas y su afición por la montaña, hacen que desde joven se interese vivamente por la artesanía de la madera. Así, aprovechando la convalecencia de una operación, empieza de manera autodidacta a tratar la madera y a tallar bastones, que regala a familiares y amigos.

La visión por primera vez de una "makila" tradicional vasca, del artesano Iñaki Alberdi, despierta en él el deseo y el empeño de reproducirla y de dedicarse a su fabricación. En este camino iniciado, en la actualidad trata de experimentar innovaciones (manteniendo la estética y el estilo tradicionales) que plasma en sus dos tipos de "makila": la de mando y la de honor. Compagina su trabajo de mecánico, con la venta de sus productos, generalmente por encargo o en ferias.

EUSKAL MAKILAK

Makila euskaldunen bastoi tipikoa da, batipat Zuberoa eta Behenafarroan; eguneroko erabilpenerako eta defentsarako arma, makilaren eskutokian izkutaturik dagoen puntzeta erabiliz gero. Pagokia, ipurueta eta gorostia izaten dira makila egiteko ohiz erabiltzen diren zurak, nahiz eta beste zur moeta batzuk ere erabili. Eskura lotzeko makilaren eskuturrian josten zaion larruzko korrea bat ere ipintzen zaio. Paloak edo makilaren zurak suarekin egindako marrazki apaingarri batzuk izaten ditu. Goiko parte, eskutokia, metal edo hezurrezkoa izaten da eta marrazki geometrikoz edo larruzko apainduraz makilari errefuertoa egiten dion zatiri errematea egiten dio. Beste aldean, puntan, beste errefuerzo bat darama metalezkoa baita ere, zenbait marrazkiz apaindurik eta makilaren puntari sendotasuna emanez; punta hau triangelu antzeko hagindun burdina bat izaten da.

Makila klasikotik aparte, betidanik ezagutzen da baitere bastoitzat erabiltzen den beste makila moeta bat. Kirtean ohiz animalia bururen bat izaten dute tailaturik. Garai haietan ez ziren faltan apaingaiak: ebakiak, triangeluak, izarrak, gurutzeak eta beste edozein irudi. Sarritan beheko punta lodiago izaten zen, arma bezala erabiltzeko asmotan edo.

LA MAKILA VASCA

La makila es el bastón típico de los vascos, sobre todo en Zuberoa y en Behenabarra; bastón de uso normal y arma de defensa, debido al estoque escondido en el interior de la parte superior del palo y la empuñadura. La pieza está hecha de madera de haya, enebro o acebo aunque también se empleen otras clases de maderas. Su parte superior es un pomo de metal o de hueso que remata un refuerzo metálico con dibujos geométricos o bien un adorno de cuero. Se puede sujetar a la mano tomando con ella una correa sujeta a la empuñadura de la makila. El palo o bastón suele llevar adornos a fuego. En el extremo opuesto lleva también, una abrazadera metálica, adornada de trazos muy sencillos que sujeta a su vez a la punta de la makila y que consiste en un modo de triángulo o cabeza estriada de hierro.

Aparte de esta makila clásica, ha existido siempre el palo a modo de bastón con una cabeza de animal tallada en la parte superior. No faltaban entonces motivos para figurar, incisiones, triángulos, estrellas, cruces u otras figuras. A veces la parte inferior remataba en una parte más gruesa y contundente como arma.

Artisaua / Artesano:
LUIS MADARIAGA MATXIKOTE

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1929, Martxoak 2 - Arantza

Helbidea / Domicilio:
Iturtzen Borda Baserria
ARANTZA (Nafarroa)

Telf: 63 40 82



Aurkezpen gisa:

Luis Madariaga, bastoigintza eta tailaketa lanetan autodidakta, bizitza osoan baserri lanetan edo nekazaritzan aritu zen artisaua da. 1979. urtean, gaixotasun batek jota, nekazaritza utzi beharrean aurkitu zen; etorkizunari aurre egin behar ziola-ta, zerbait egiten hasteko erabakia hartu zuen.

Poliki-poliki bastoigintzan murgiltzen hasi zen, bere herrikidea den Miguel Larretxea aranaztar artisauak egindako bastoiak eredutzat zituelarik.

Eskutako gaitasuna, eta bereziki has-tapenetako zailtasunaldia gainditzeko pazientzia eta konstantzia, oinarritzkoak izan dira artisau honek bere lanean erakutsi duen bidean; egunez egun, bere ekoizpenak kalitate, zailtasun eta tailaketa mailan aberastuz eta aberastuz etorri dira. Salmentak normalean azokaz azoka egiten ditu.

Otros datos:

Artesano autodidacta en la fabricación y talla de bastones, Luis Madariaga había venido toda su vida dedicándose a las labores del campo, es decir a los trabajos normales del caserío. Hacia el año 1979 sufre una enfermedad que le impedirá en adelante mantener esta vida de Labrador, lo cual le hará replantearse en cierto modo su futuro y decidir no quedarse sin hacer nada.

De esta manera se inicia poco a poco en este campo, tomando como modelo los bastones fabricados por el artesano Miguel Larretxea, vecino también de Aranz.

Una cierta habilidad manual, pero sobre todo la paciencia y la constancia para superar los difíciles comienzos, han sido fundamentales en la trayectoria de este artesano que ha visto como iban mejorando día a día sus productos en calidad, dificultad y riqueza de talla. El campo de venta lo tiene generalmente a través de las Ferias.

MAKILA

Historiaurreko aztarnategietan burututako indusketetan egindako aurkikuntzen artean badago bat, historiaurrearen ikertzaileek aginte-bastoiak izenez bat-taiatu dutena. Izen horrekin ezagutzen dira bastoi-buru antzeko zenbait tresna; normalean erreno edo oreinaren adar-hezurrez egindakoak direlarik, adar-ka-koak hasten diren lekuan, goitik edo behetik, daude moztuta. Adarren hiru enbor elkartzen diren korapiloan edo gunean, zulo bat izaten dute, batzuetan hiru zulokoak ere aurkitu izan direlarik. Sarritan zulo arte horretan, erliebe apaleko grabaketaren batzuk ere ikus daitezke, animalien edo ehizaren irudiak izaten dira.

Adar-hezur hauek eta beren zulo erregularrak tximistarriz landuta daude. Halere, arkeologoak ez datoz bat balizko bastoi hauek aginte-bastoiak direla esatean; batzuentzat bastoi hutsak baizik ez dira, beste batzuentzat agintea-ren erakusleak dira, hau da, aintzinako agintarien ezaugarriak, edota erregeta-sunaren adierazleak; beste batzuentzat, ordea, ehiza trofeoak baino ez dira.

Dena den, ezin da baieztapen handirik egin eta ezin da esan bastoi-buru horiek erregeenak edo zein moetak agintarie-nak ziren, bistan diren arazo kronologi-koak direla bide. Baina egia dena da, gaur egun bastoiak agintarien eskutan dirautela, sinbolikoki bada ere.

Makilak edo bastoiak egiterakoan arti-sau honek intsusa, sagarrondo edo elo-riaren egurra erabiltzen ditu; apainke-tak berriz giza-irudiak izaten dira gehie-tetan.

EL BASTON

Las investigaciones de las estaciones prehistóricas, han producido el descubrimiento de unos curiosos ejemplares calificados por los arqueólogos prehistoriadores como bastones de mando. Bajo este nombre son conocidos unos a modo de puños de bastón hechos de hueso de asta de reno o de venado, cortados a corta distancia, encima o debajo indistintamente, del crecimiento de un mogote. En el punto de convergencia de tres cilindros óseos, presentan esos bastones un agujero, en algunas ocasiones pueden ser más de tres perforaciones. En el espacio que dejan éstas se ven a menudo grabados, en relieve muy bajo, representaciones de animales o escenas de caza.

Estos objetos y las perforaciones regulares que poseen han sido trabajados con instrumentos de sílex. No están acordes los arqueólogos sobre el destino de estos supuestos bastones llamados de mando, pues mientras unos los conceptúan como verdaderos bastones, insignias primitivas de autoridad y aún cedros de reyes, otros suponen que son meros trofeos de caza.

No es posible afirmar si pertenecían verdaderamente a personajes elevados, con mando y jurisdicción por motivos cronológicos obvios. Lo cierto es que hoy en día los bastones se continúan llevando en manos de las autoridades aunque su espíritu real sea meramente simbólico.

En su confección, este artesano utiliza maderas de sauco, manzano o espino, siendo las tallas generalmente sobre motivos humanos.

Artisaua / Artesano:
IÑAKI AGIRREZABALA LANDA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1956, Abuztuak 9 - Matxinbenta

Helbidea / Domicilio:
Erdiko Ostaturia
MATXINBENTA (Gipuzkoa)



Aurkezpen gisa:

Tradizioz gaztain zumitzezko otargintzarekin zerikusi handia duen familian eta eskualdean jaioa. Txiki-txikitatik eza-gutu eta bizi izan du lanbide zahar hau, bere familiak zeukan saskitegian; jakina da gutxinez bere aitona-ren familiakoak ere otarginak zirela.

Bere familia otargintzan aritzen bazen ere, bera, 26 urte bete zituen arte, ez zen lanbide honetan sartu. Urte askotan zehar edozein moetan otar, saski eta antzeko gaiak egiten dituen tailer honetan dihardute Jose Mari eta Agustina Landa bere guraso eta irakasleek ere. Beren ekoizpenak, urteak joan urteak etorri egungo gusto eta beharizanetara egokitu behar izan badituzte ere, aintzina, bai nekazaritza lanetan bai herrian bertan ere, asko erabiltzen ziren gaiak izaten dira.

Normalean alde zuzenetik hitza emanda izaten duen denda-sare bati saltzen dizkio bere lanak.

Otros datos:

Nacido en el seno de una familia y de una zona guipuzcoana tradicionalmente ligadas a la artesanía de la cestería de fleje de castaño, desde pequeño ha conocido y vivido de cerca este antiguo oficio en el taller familiar; taller que se remonta al menos a la familia de su abuelo.

No será sin embargo hasta los 26 años de edad, cuando inicie, de la mano de su padre José Mari y de su madre Agustina Landa, su andadura profesional en este taller en el que durante muchos años se ha confeccionado toda la tipología de cestos y similares; es decir, productos que se han venido utilizando en las diversas labores del campo o de la ciudad, y que a través de los años han tenido que ir adaptándose a las necesidades y gustos del momento.

Su mercado natural lo constituye una red de tiendas con las cuales apalabra de antemano.

GAZTAIN ZUMITZEZKO OTARGINTZA

Estakadurazko otargintza Neolitiko garaian ere ezagutzen zen teknika da. Otargintza moeta horretan zumea, sahatsa edo gaztain zumitza erabiltzen dira. Elementu batzuk perpendikularki jartzen dira (pasiboak) elkarren artean bi edo hiru elementu mugikorrez (aktiboak) alternatiboki lotuz; elementu mugikor horiek ere, era berean lotu egiten dira soka bihurrituaren antzeko zerbait eratuz. Lan honetan behatzak baino ez dira erabiltzen.

Otargintza ehotuaren teknika ziur aski Brontze Aroan sortu zen. Bi zumitz edo gehiago, edota tira leunak, elkarrekin kordonduz egiten da; kordontzea perpendikularki egiten da, batek elementu pasiboarenak (otarren eratailea edo irazkia) egiten duelarik, eta besteak aktiboarenak (bilbea), hau da, elementu bat ginetik eta bestea azpitik joango dira, eta hurrengo pasadan beren artean alternatuko dira, azpian zegoen zumitza gainera pasako delarik.

Gaztain zumitzezko otarrak egiteko (zumitzak espartzatzen dituen teknika erabiliz), lau zumitz zabal (saietsak) beste laurakin estenkatzen dira zurezko egitura baten gainean, zumitzei oinetako behatzekin eusten dizkietelarik otargileek. Bi aldeetatik, alboetako egitura eratzeko adina tirak ateratzen dira, bertikalki jartzen direlarik; gero, erosatuz ere tenkatzen dituzte soka batekin. Hemen-diki aurrera eserita lan egingo dute; horizontalki daudenekin jarraituko dute, oraingoan gabiko batekin kolpatuz, zumitzak hobeto elkartzeko; zumitz bat bitan banatu beharko da, saiets kopuru eza-parea lortzeko eta bilbeari amaiera eman ahal izateko. Hori eginda berehala, aro bat jarriko zaie behar den kurbadura emanaz. Bertikalki dauden tirak, alegia, otarraren egitura osatzen dutenak, aro horren ginetik pasako dira, doblatu eta, puntadunak direnez, goialdeko bilbean sartuko dira goitik behera, aroa harrapatuz eta otarra errematatuz. Batzuetan euskarriak ere jartzen zaizkie. Gero, alde guzti hori, bilbearen amaiera eta aro arteakoa, indartu egingo da tira mehe batzuk sartuz eta bide batez hutsuneak betez.

CESTERIA DE FLEJE DE CASTAÑO

La técnica de cestería atada aparece ya en estadios Neolíticos y puede ser elaborada con mimbre, sarga o con flejes de castaño. Consiste en una serie de elementos perpendiculares (pasivos), entrelazados por medio de la alternancia de dos o tres elementos móviles (activos) que van atándose al mismo tiempo que forman entre sí una especie de cuerda retorcida. Para su realización sólo se usan los dedos de la mano.

La técnica de cestería tejida surgió probablemente en la Edad del Bronce. Consiste en el entrecruzamiento de dos o más flejes o tiras planas, perpendicularmente, actuando una de elemento pasivo (montantes del cesto o urdimbre) y otra de elemento activo (trama), componiendo un elemento por encima y otro por debajo, produciéndose así una alternancia del sistema en la pasada siguiente.

Para elaborar un cesto de flejes de castaño (siguiendo la técnica de cestería en damero) entretejen sobre una estructura de madera cuatro por cuatro tiras anchas (saietsak) sujetándolas los cesteros con los dedos de los pies descalzos. Por ambos lados, las tiras sobresalen suficientemente como para formar el armazón de los costados disponiéndolas en dirección vertical y las entrecosen con una cuerda para trabajarlas con mayor comodidad. A partir de ese momento se sientan y continúan el trabajo de las tiras horizontales golpeándolas con la maza para que queden perfectamente unidas, aunque una de ellas habrá de ser partida en dos para conseguir un número impar de costillas y poder cerrar el tejido. Inmediatamente se les pone el aro dándole la curvatura precisa. Las tiras verticales o armazón del cesto, se pasan por encima del aro, se doblan y, como llevan punta, se incrustan en el tejido de arriba a abajo, quedando el aro aprisionado y el cesto rematado. Opcionalmente, pueden llevar asas. Luego, se refuerza la zona, entre el final del tejido y el aro, con unas tiras muy estrechas, y se tapan posibles huecos.

Artisaua / Artesana:
LOURDES ARANAGA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1958, Ekainak 5 - Getxo (Bizkaia)

Helbidea / Domicilio:
Bereterretxe Kalea, 1 - 4º
ERANDIO (Bizkaia)

Telf.: 467.62.11



Aurkezpen gisa:

Naiz eta betidanik izan eskulanetako joera, Lurdes Aranaga ez zen eskulangintzaren munduarekin harremanetan jarri 1986. urte arte; hau da 28 urte zituela. Garai horretan Erandioko Institutoak eraturako otargintzaren ikastaro batean parte hartzen du; eta pozik parte hartu ere, zeren eta haren ondoren, ordurarte ezezaguna zuen mundu hura bere ogibide egiteko erabakia hartzen bait du.

Aurrerantzean, ofizio berdineko artisauekin izandako ideien trukaketa eta etengabeko saiakera bat, bere lanaren oinarri teknikoa bihurtzen dira. Lana aberatsa eta ugaria, nahiz ohizko otargintzan, nahiz dekorazio eta erabilerrako tresna berrien diseinuan; azkeneko hauek beste zenbait materiale eta xehetasunez aberasten ditularik.

Bere produktuak eskulangintza azoketan saltzen baditu ere, Bilbo, Hueska edo Galiziko denda batzuetako lanean ari da ere.

Otros datos:

Aunque desde siempre había tenido afición por los trabajos manuales, el contacto de Lourdes Aranaga con el mundo de la artesanía propiamente dicho, no se produce hasta el año 1986, es decir a los 28 años de edad. En esta fecha asiste a un cursillo de cestería organizado por el Instituto de Erandio, del que sale encantada y dispuesta a emprender su vida profesional, en esta actividad con la que no había tenido contacto hasta entonces.

Posteriormente, el intercambio de ideas con otros artesanos del gremio y la continua experimentación, formarán la base técnica sobre la que se sustentará su producción. Una producción rica y variada, no solo de cestería tradicional, sino también de objetos de decoración y uso de nuevo diseño, enriquecidos con detalles y acabados de otros materiales.

Vende sus productos generalmente a través de las ferias de artesanía, aunque también realiza encargos para tiendas de Bilbao, Huesca o Galicia.

KANABERAZKO OTARGINTZA

Kanaberazko otargintzaren lehenbiziko lana, kanabera adarrak prestatzea izaten da. Lehenengo eta bat, azala kenduko zaie horretarako bereziki prestatutako tresna batzuekin; gero, eguzkitan utziko dira, behar bezala aireztaturiko leku batean, azkar lehor daitezzen. Sarritan, kanaberak arraildu egin behar izaten dira printzailu batekin, zuntz fin eta malguak lortzeko.

Bestalde, kanaberari ebaki bat egiten zaio mutur lodienean, gero arrailak egiteko tresna hor sartu eta kanaberaren luzetara zumitz mehe eta finak ateratzen hasteko. Ondoren, kanabera zumitz guzti horiek berdindu egingo dira arrabotaz. Otarra edo otzara egiteko nahiko zumitz prestatu direnean, otarra egiteari ekingo zaio, lehenengo azpia prestatuko delarik. Horretarako, zumitzak hartuko dira, elkartu eta erditik hasita bi sortatan banatuko dira, espiralean zeharkatuko dituzten beste kanabera zumitzez estekatuko direlarik. Bi sorta horiek otarrearen gorputza edo armazoa osatuko dute eta forma berezietan eraturiko dira, gero beste adar zuntzekin horizontalki edo diagonalki beren artean estekatuko direlarik.

Otarreak, horrela eginik, margotu, esmaltatu etabar egiten dira. Otargintzari dagokio baitere altzarien zumitzezko sareak egitea. Industria moeta horrek garapen handia izan du Japoi aldean.

CESTERIA DE CAÑA

Para la elaboración de cestos de caña se empieza por cortar las ramas o cañas, quitarles la piel mediante un útil especial que consiste en unas mordazas que se corren a lo largo de la rama o caña y luego se dejan secar al sol convenientemente aireadas para que se sequen rápidamente.

Las cañas se rajan muchas veces con el fin de tener ramillas finas y flexibles, mediante un rajador. El filo de la arista cortante del rajador entra en una incisión abierta en la parte más gruesa de la caña y luego se corre longitudinalmente a lo largo de la misma. Los fragmentos y las ramillas de caña se igualan luego mediante un cepillo. Cuando se dispone de suficientes ramillas se procede a la elaboración del cesto, empezando por el fondo. Generalmente se constituye éste por dos haces de ramas que divergen a partir del centro, unidas entre sí por una serie de ramas transversales en espiral. Los dos haces suelen formar el armazón de las paredes laterales, que se construyen después mediante formas especiales, y se sujetan por series horizontales o diagonales de ramillas.

Los cestos se pintan, esmaltan, etc... A la fabricación de cestos pertenece la de rejillas para los muebles. En Japón ha alcanzado esta industria un desarrollo floreciente.

Artisaua / Artesano:
FERMIN ERVITI ZABALETA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1921, Abuztuak 5 - Leitza

Helbidea / Domicilio:
Amazabal, 8 Behea
LEITZA (Nafarroa)

Telf.: 51 02 52



Aurkezpen gisa:

Betidanik aizkorak egiten zituen artisau-errementarien familian jaioa. Duela ehun urte baino gehiago bere aitona Martin Antoniok sutegi bat ireki zuen Leitza. Bere aita Martinek ere, beste anaiekin batera, tailer horretan lan egin zuen, bai aizkorentzako "Tizu" markako burdin moeta propioa egiten bai nekazaritzako era eta moeta guztietako lanebsak fabrikatzen.

Familia giro honetan, 15 urte zituelarik hasi zen aprendiz lanak ikasten Fermin; garai hartan sutegia bete-betean ari zen lanean, bederatzi langilekin; "aho borobil" izenez ezagutzen ziren 20-25 aizkora ateratzen zituzten egunero, Euskal Herri eta Kantauri hegialde guztian zehar saltzeko.

Azken urte hauetan, Luis Erviti, gazte-tandik lankide izan duen bere lehengusarekin batera lan eginez mantendu du tailerra. Ferminen jubilazioaz amaituko da errementarien dinastia hau.

Otros datos:

Nace en el seno de una familia de artesanos-herrerros dedicada tradicionalmente a la fabricación de hachas, desde que su abuelo Martín Antonio instalara, hace más de cien años, su primera fragua en Leitza. Su padre Martín, así como sus hermanos, trabajaban también en aquel taller donde además de fabricar su propio hierro "marca Tizu" para las hachas, se hacían también toda clase de aperos y útiles de labranza.

En este ambiente familiar, Fermín inicia a la edad de 15 años el aprendizaje del oficio, entonces en pleno rendimiento, con nueve personas en la fragua y una producción diaria de 20-25 hachas del tipo denominado de "boca redonda" que se vendían en toda Euskal Herria y en la Cornisa Cantábrica.

En los últimos años ha mantenido el taller trabajando junto con su primo y compañero de oficio desde joven, Luis Erviti. Con su jubilación desaparece esta dinastía de herreros leitzañarras.

HAIZKORAK

Bat baino gehiago dira Euskal Herrian egiten diren aizkora moetak; oraindik ere aizkora batzuk tailer txikietan egiten dira artisau lanez; zentzu honetan, aipagarriak dira Gipuzkoa eta Nafarroako aizkoragintzak. Nafarroakoen ezaugarrietariko bat aizkoraren bizkar sendoa eta pisutsua da; aizkora horietan ahotik bizkarrerako neurria ia ahoaren luzera berdinekoa izaten da. Aizkora moeta hori da, hain zuzen ere, aizko-dematan erabiltzen dena, gure baserritarrek ere nahiago dutelarik. Bizkaiko aizkorak ez dira Nafarroakoak bezain sendoak eta bizkarraren altuera txikiagoak dira. Azken horien ahoaren angeluak, Nafarroako aizkoren aho borobilaren kontra, zorrotzagoak dira. Bizkaiko aizkora moeta egur mozketa bezalako lan txikiak egiteko erabiltzen da, eta industriak barra-barra fabrikatzen du.

Badago beste aizkora moeta bat ere, hots, llargi-aizkora deitzen zaiona, baina gaur egun ez da erabiltzen, mendian egiten zen egurrikatzaren bilketa erabat desagertu delako edo ia desagertzeaz dagoelako. Aizkora hauen ahoa borobila eta zabala da, eta ahotik bizkarrerantz, kirtena sartzeko zulorantz alegia, estutu egiten dira. Pisu gutxiak izaten dira eta kirtena nahiko motza. Kirtena lizarki edo pagokiz egiten da.

Erreminta honek lanerako duen erabilgarritasuna aipatzeaz gain, interesantea da baitere bere alde magiko-babesleari buruzko aipamenen bat egitea. Tximisten kontrako babesgarritzat hartu izan dira; hori dela-ta, zenbait eskualdeko etxeetan ohizkoa da tximistarritzko aizkoraren bat edukitzea, uste baita tximistatik datozela eta etxean edukitzeak nolabaiteko babesna ematen duela.

HACHAS

En el País Vasco existen varios tipos de hachas; muchas de ellas se siguen fabricando de artesanía en pequeños talleres de los que se pueden destacar los de Gipuzkoa y Navarra. Las hachas navarras se caracterizan por su mayor robustez y peso en la parte del lomo, llegando a tener esta parte una altura igual o parecida a la de la hoja. Este tipo de hachas son las que emplean los aizkolaris en las apuestas de corte de troncos y también es la preferida por nuestros baserritarras. Las hachas de tipo llamado vizcaino no son tan robustas como las navarras y poseen un lomo de menor altura. Su forma general es angulosa en contradicción a las anteriormente descritas que son las que emplean los aizkolaris en las apuestas de corte de troncos y también es la preferida por nuestros baserritarras. Las hachas de tipo llamado vizcaino no son tan robustas como las navarras y poseen un lomo de menor altura. Su forma general es angulosa en contradicción a las anteriormente descritas que son las que emplean los aizkolaris en las apuestas de corte de troncos y también es la preferida por nuestros baserritarras. Las hachas de tipo llamado vizcaino no son tan robustas como las navarras y poseen un lomo de menor altura. Su forma general es angulosa en contradicción a las anteriormente descritas que son las que emplean los aizkolaris en las apuestas de corte de troncos y también es la preferida por nuestros baserritarras. Este útil se emplea para realizar trabajos de poca envergadura, como el corte de leña y la industria lo fabrica a gran escala.

También existe el llamado llargi-aizkora que en la actualidad ya no se emplea, ya que la industria del carboneo en los montes ha desaparecido por completo o está en vías de hacerlo. Estas hachas tienen el filo de forma redondeada, hoja ancha que va reduciéndose a medida que se acerca al lomo y punto de sujeción del mango. Tiene poco peso y mango relativamente corto. Los mangos suelen ser de fresno o de haya.


Aparte de la utilidad práctica que tiene esta herramienta como útil de trabajo, es interesante destacar algún aspecto mágico-protector de las mismas. Las hachas han sido consideradas como elementos protectores contra el rayo, de ahí que en algunas comarcas haya casas que poseen pequeñas hachas de sílex que son llamadas "piedras de rayo", por creer que provienen de él y que su posesión implica protección.

Artisaua / Artesano:
VICENTE ALBERDI AIZPURUA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1947, Urriak 6 - Itziar (Gipuzkoa)

Helbidea / Domicilio:
Wenceslao Orbea Kalea, 15-4.º Ezk.
EIBAR (Gipuzkoa)

Telf.: 11 21 61



Aurkezpen gisa:

Itziarren jaio zen eta lau urte zituelarik Eibarrera joan zen bizitzera. Herriz aldatze horrek bere lanbidearen traiektoria markatu zion behin betiko. Damas-kintza eta metal grabaketa mailarik go-
renetan zeuden garaiak ziren, eta, herri horretako beste gazte asko bezala, Felix Boliganaren tailerrean hasi zen armagintza ikasten 13 urterekin. 20 urte bete zituen arte herriko zenbait tailerretan aritu zen ikasten, aipagarria delarik Lucas Alberdi maisuaren eskolan egin zuen ikastaroa. "LAURONA" arma fabrika zazpi urte luzetan lan egin ondoren, bere tailer propioa montatu zuen beste sozio batzuekin batera. Ikasteko grinak jota, bi aldiz joan zen Italiako GIOVANELLI eskola famatura, artisau ospetsu honen eskutik ikastera.

Gaur egun, bere tailer propioa du beste sozio batekin. Era askotako lanak egiten ditu, hasi armen apainketatik eta erretiluen grabaketak, txapak, errotulak etabarretaraino, denak ia beti enkar-guz saltzeko.

Otros datos:

Nacido en Itziar, a los cuatro años de edad se traslada a Eibar, hecho éste que marcará definitivamente su trayectoria profesional. Eran tiempos florecientes para el damasquinado y el grabado de metales, y como otros muchos jóvenes de la villa armera a los 13 años entra como aprendiz en el taller de Félix Bolinaga. Hasta los 20 años perfecciona el oficio en varios talleres de la localidad, pero sobre todo en la escuela del maestro Lucas Alberdi.

Después de trabajar siete años en la empresa de armas "LAURONA" monta, junto con otros socios, su propio taller; taller que la crisis generalizada del sector hará cerrar. Su inquietud profesional le lleva dos veces a la famosa escuela GIOVANELLI de Italia para aprender con este gran artesano.

En la actualidad tiene, junto con otro socio, su propio taller, donde se trabaja toda una serie de productos que van desde la ornamentación de armas, grabados de bandejas, chapas, rótulos, etc., que venden generalmente por encargo.

XIXEL GRABAKETA

Historian zehar gizonak beti izan du bere armak eta tresnak grabatzeko ohitura; grabaketa horiek modelo, fetxa, fabrika etabar ezagutzera emateko egiten ziren. Baina, kamafeoa, harri-bitxi txertaketa edo nikelatuarekin gertatzen den bezala, grabaketa ere, denboraren poderioz, azkenean bera bihurtu da artelan. Beste teknika batzuekin elkarturik, grabaketak era askotako arte lanak sor ditzake, hau da: esmalteak, txanponak, sigiluak, hala nola estanpaketa bidezko grabazioetarako matrizeak.

Matrizearen grabaketa eskuz egin daiteke zuzenean, xilografian egiten den bezala, edota burilez, punta-lehor edo egur beltzez, edota baitere prozedura kimikoen bidez, nahiz eta azken hori ur-garratzezko grabatuetan eta honen eratorrietan baino ez erabili.

Grabaketarako funtsezko elementuak tinta eta papera dira, hau da, kolore beltza, irudiari gorputza ematen diona, eta zuria. Ikuspuntu artistikotik begiraturik, grabaketa zurean egiten den marra hutsa baino zertxobait gehixeago da: laborketa zaila duen lan artistikoa da. Grabatzaileak ez du, izatez, lanaren kontrol zuzen eta iraunkorrik, margolariak eta eskultoreak izaten duten bezala; bere obra iraulestara dagoela lan egiten du grabatzaileak, eta horrek are gehiago zailtzen du bere eginkizuna. Halere, zailtasun guzti horiek badute ordaina lana bukatzean: grabatua kalitatekoa denean, bere adierazgarritasuna hain bizia eta indartsua izaten da, margoaren eta dibujoaren parekotzat jotzen dela.

GRABADO A BURIL

A lo largo de la historia, el hombre ha grabado en sus armas e instrumentos conjuntos de marcas y signos para indicar su modelo, fecha, fábrica, etc.... También en el transcurso de los tiempos el resultado de la operación de grabar ha constituido la obra en sí, como sucede en los camafeos, las gemas incisas o el níquelado. Asociado a otras técnicas el grabado puede producir obras de arte de muy distinta especie, como esmaltes, monedas, sellos, así como la matriz de los grabados de estampa.

El grabado de la matriz puede hacerse directamente a mano, como sucede en la xilografía, el buril, la punta seca o la madera negra, o bien con el auxilio de procedimientos químicos, lo cual sólo es patrimonio del aguafuerte y sus derivados.

Elementos esenciales del grabado son la tinta y el papel, es decir, el color negro, que da cuerpo a la imagen, y el blanco. Desde el punto de vista artístico, el grabado no es un simple dibujo que se realiza sobre madera, piedra o metal, sino una obra de compleja elaboración; el grabador, en efecto, no posee, como el pintor o el escultor, el control directo y constante sobre la obra, que tiene que realizar del revés y en condiciones que dificultan su ejecución. Tales inconvenientes tienen su compensación en la obra terminada, ya que el grabado, cuando es de calidad, posee una fuerza expresiva que lo hace tan valioso como la pintura o el dibujo mismo.

Artisaua / Artesano:
M.^a JESUS BERASALUCE RODRIGUEZ

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1946, Apirilak 29 - Eibar (Gipuzkoa)

Helbidea / Domicilio:
VI Centenario Kalea, 12-5.^o
ERMUA (Bizkaia)

Tel.: 17 17 09



Aurkezpen gisa:

Bere adineko beste eibartar neska asko bezala, 15 urterekin hasi zen lanbidea ikasten. Lucas Alberdi metalen apaiketa eta ederdura artelanetan maisu handiaren Damaskintza eskolan sartu zen, metalaren langintza berezi hau ikastera.

Ikastaldiak hiru urtekoak izaten ziren, ondoren ikaslea tailer edo fabrikaren batetan edota bere kontura hasten zelarik; kasu horretan, ia beti grabatzaile talderen batentzat lan egiten zuten, gero talde horrek berak komertzializatzen zuelarik taldean egindako lana. Artisau honen iritzian, Toledorekin dagoen kompetentzia (herri horretan eskuz baino gehiago makinaz lan egiten dute), kalitate arazoetan oinarritzen zen.

Azken urte hauetan batik bat STAR, LLAMA eta ASTRA arma fabriketako suarmen damaskintzan lan egin du. Baina, suarmen apaiketa lan horrez gain, artisau lan klasikoak ere egiten ditu, gero normalean enkarguz bere etxetik saltzeko.

Otros datos:

A semejanza de otras muchas jóvenes eibarresas de su generación, a los 15 años de edad inicia el aprendizaje del oficio ingresando en la escuela de Damasquinado de Lucas Alberdi, todo un maestro en las artes de la ornamentación y embellecimiento de los metales.

La permanencia en esta escuela era de tres años, tras los cuales se entraba en un taller o fábrica, o se empezaba a trabajar por cuenta de cada uno; en estos casos generalmente para un grupo de grabadores que a la vez se dedicaban a comercializar los productos. En opinión de esta artesana, la competencia con Toledo (donde se trabajaba mucho a máquina en vez de a mano) derivaba en un producto de menor calidad que el actual.

Durante los últimos años ha trabajado fundamentalmente en el damasquinado de las armas de fuego de las casas STAR, LLAMA y ASTRA. Aparte de esto realiza también las clásicas piezas de esta artesanía, que vende generalmente por encargo y desde su propio domicilio.

DAMASKINTZA

Badirudi damaskintzak, izenak berak adierazten duenez, Damaskon izan zuela jatorria. Zenbaitek dioenez, Khios Irlako Glauko, Kristo aurreko VI. mendean bizi zen estatugile greziar bat, izan omen zen asmatzailea. Ezpatak, labainak, eskopeten kainoiak, bitxiak, burukorrazak eta luxuzko beste hainbat gauza edertasunez apaintzeko erabiltzen da.

Damaskintzan lehenengo ur-nitrikoz dibujoaren ildoak egiten dira metalean, eta gero ur-nitriko horrek jan duen metalaren zuloetan metal apaingarriaren xafla mehe-meheak aplikatuko dira, gai finkagarri batek gogor lotuko dituelarik. Xaflak finkatu ondoren, dibujoen marretatik gainezka dagoena kenduko da. Emaitza berdintsuak lor daitezke landu nahi den materiala buril batekin zulatu eta zulo horiek urre edo zilar xafla mehez betetzen badira. Azken kasu honetan, metalean egiten diren zulo edo ildotak miru-buztan erakoak izan beharko dira, apaindura xaflak bertan txertatzekoan ondo finka daitezten. Beste prozedura bat, gehien erabiltzen dena alegia, honela da: damaskinatu nahi den objektuaren gainazala marra finez betetzen da, batzuk luzeetara eta beste batzuk zabaletara, horretarako aurretik metala ia goritu arte berotuko delarik; gero, urre edo zilarrezko hari mehe bat hartuz ildo horietan sartuko da dibujoarenertzak jarraituz, horretarako kobrezko zizailu bat erabiltzen delarik; azkena emateko, metalean marrak egiterakoan burilak atera dituen bizarrak, ildoetan sartutako metalaren gainera tolestuko dira, hari apaingarria askatu ez dadin.

DAMASQUINADO

El damasquinado, originario tal vez de Damasco, como su nombre parece indicar, se atribuye por algunos a Glauco de Chios, estatuario griego que vivió en el siglo VI antes de Cristo. Se emplea para decorar con riqueza las hojas de espadas y cuchillos, cañones de escopetas, dijes, alfileres y otra multitud de objetos suntuarios.

El damasquinado se ejecuta vaciando al agua fuerte los dibujos y aplicando el metal en hojas delgadas sobre el mordiente de cola de oro que sirve para pegarlo. Después de secos los objetos se quita con un instrumento cortante todo lo que sobresale de los dibujos. El mismo resultado se puede lograr tallando las piezas con el buril y rellenando los huecos que se forman con chapitas delgadas de oro o plata. Las incisiones deben hacerse en este caso a cola de milano, con el fin de que al embutir la chapa quede ésta bien sujeta. Otro procedimiento, que es el más usado, consiste en cubrir la superficie del objeto que se ha de damasquinar de rayas finas, longitudinales y transversales, caldeándolo antes hasta que tome el color azul o violeta; después se toma un hilo de oro o plata y se aplica siguiendo el contorno de las figuras dibujadas, haciéndolo penetrar en las rayas por medio de un bota-dor de cobre; para que no se salga luego el hilo basta rebatir sobre él las rebabas que había levantado el buril al rayar el metal.

Artisaua / Artesano:
JUAN RAMON ZUBILLAGA URANGA

Jaioteguna / Fecha de nacimiento:
1956, Urtarrilak 14 - Azkoitia (Gipuzkoa)

Helbidea / Domicilio:
(tailerra) Matsaria, 1
EIBAR (Gipuzkoa)

Telf.: 11 65 79



Aurkezpen gisa:

11 urte zituen bere familiak Eibarrera aldatzea erabaki zuenean, Ignacio Zubillaga bere aitak eskopetak egiteko tailerra ireki bait zuen herri horretan. Beraz, txikitandik ezagutu eta bizi izan du artisautzua, eta bereziki Eibarren hain sustairurik dagoen eskopetagintzarena.

Baina bere ikasketak ez ditu bakarrik "in situ" esaten den horretan egin, baizik eta, bolada berrien beharizanetara egokituz, Enpresarialak, Tailerra, Zerbaki Kontrola, etabarreko ikasketak ere egin ditu; halere, ikasketak ikasketak, 24 urte zituenetik oso-osorik dedikatu izan da artisau lan honetara.

